



ANOTHER SIDE OF ZORROTZAURRE

Dagoeneko, Bilbo Handiak hartzen duen eremuan behinik behin, oso zabalduta dago Zorrotzaurre idiliko baten irudia. Aukeren lurraldea, etorkizun distiratsu baten promesa, iraganeko ereduak eta garaiak atzean uzten dituen aurrerapen geldiezin gisa ulertutako garapena. Hori guztia sinbolizatzen duen totem ikoniko baten antzera aurkezten digute Zorrotzaurre. Historia hori entzungo duzu kontalari ofizialistak dituzten itsasontzietan txango bat egiten baduzu. Historia hori bera irakurriko duzu zenbaitentzat “munduaren hiriburua” den gure hiri honen birmoldaketa postindustrial eredugarriaren gailur moduko horri hain leku handia eskaini dioten egunkari eta aldizkari ugarien hemerrotekarakatzen badituzu.

Hamar urte luzez egindako propaganda instituzional eta mediatikoak (egia esateko, ez dakit gaur egun bereizketa hori egitea merezi duen) arrasto sakona utzi du bere burua mirestek berezko joera duen hiri baten subkontziente kolektiboan. Dagoeneko inork ez du begiratu nahi erakusten diguten irudi horretatik harago, erakusten diguten guztia zoragarria baita, ezinago *beautiful*, guztiz *wonderful*... Etorkizun miragarri horretarantz goaz mugarriz mugarri, hau da,

maketaz maketa, planoz plano, epeka (azpimarratu beharra dago orain arte ez dutela epe bat ere bete). Eta, horrela, gezurren eta erdizkako egien artean (marketinak eta paperak edozer onartzen dute), bi zubi izango dituen uharte batera iritsi gara. Zubitik zubira aurrera... edo atzera.

Hemen kontatuko dudana historia, ordea, oso bestelakoa da, eta ez duzu aurkituko propaganda liburuxketan edo udalak nahiz haren menpeko erakundeek egiten dituzten txostenetan, haien helburu nagusia kea salduz dirulaguntza oparoak jasotzea edota Europak banatzen dituen dirutza mardulak eskuratzea baita. Idilioak edo xarmak *Zorrotzaurre Creativo y la Isla del Conocimiento* du izena. Historia honen izenburua, aldiz, *Zorro-Fraude Kreatimo y la Isla del TodoCemento* da.

Baina, lehenik eta behin, koka gaitetzen, horretarako ere diskurtso ofizialetik ihes egin beharra baitago. Izan ere, “memoria historikoa” eta horrelako hitz potoloak barra-barra erabiltzen dituen arren, diskurtso ofiziala memoriaren edo sustraiaren adierazle izan daitekeen edozein ezaugarri ezabatzeko tematu da hasiera-hasieratik. Leku

bat aukeratu dute etorkizuna (edozein etorkizun) bertan kokatzeko, eta egin duten lehenbiziko gauza leku horren izena aldatzea izan da.

Ondo prestatutako eta hobeto bideratutako azpikeria baten bitartez, nahaste izugarria sortu eta Erribera auzoak bere betiko izena galtzea lortu dute. Lehenik, Aste Nagusiko kontzertuez baliatu ziren horretarako (Aste Nagusia abagune bikaina baitzen amarrua hedatzeko): egun batetik bestera, ordura arte Botikazarreko zabalgunea izan zena Zorrotzaurreko zabalgunea izatera pasatu zen. Horren aurrean, gogorarazi beharra dago auzoaren izena Erribera dela (Deustuko Erribera, Deustuibarra). Orain dela 200 urte baino gehiago sortu zen eta 1925era arte Deustuko Elizateko auzoa izan zen (urte horretan Bilbok elizatea anexionatu zuen deustuarren borondatearen kontra). XX. mendearan erdialdean, azkenean dartsena izango zen kanal bat ireki zuten, Erribera gainontzeko Deustutik bananduz. Gainera, Erriberako Euskalduna auzoa desagertu zen eta jende askok beste leku batera bizitzera joan behar izan zuen azkenean ezerezean edo erdizka gelditu zen obra baten ondorioz. 80ko urteen hasieran, berriz, ontzigitzaren sektorea desagertzearekin batera eta krisiaren aitzakiarekin, Erribera zehaztu gabeko etorkizun baten zain geratu zen, egunen batean bertan egingo omen zutenaren menpe, luzerako eta epe jakinik gabe denboran geldirik.

Garai hartan hasi ziren batzuk zonalde osorako Ekintza Plan Integral batez hitz egiten. Ordurako, asmo hori zerabilten buruan frankismoaren osteko lehen urteetako handimandiek eta politikari sasi-jakintsuek (desarrollismoaren ustezko modernotasuna haren existentzia bezain zaharra da). Agindutako etorkizun horren zain, Erriberan bizi garenok 30 urte baino gehiago daramatzagu bazter utzita, gure auzoa orain garatzeko aukera oro ukatzen zaigularik: auzoko azpiegiturretan egin beharreko hobekuntza guztiak berehala abiaraziko omen zituzten eta beti gerorako uzten zuten Ekintza Plan Integral horren menpe geratzen ziren.

Hala ere, gure aldetik dena ez da kexa eta arrangura izango... Ostrazismo horrek auke-

ra eman zigun inguru paregabe batean bizitzeko, bertatik bertara geneukan hiriko abiadura zorotik at, lasai eta gure erritmoan. Aukera izan genuen komunitatea sortzeko eta hiri handi bati baino gehiago herri txiki bati dagokion tankeran (elkar)bizitzeko. Auzoak gabezia ugari zituen arren, gu eroso sentitzen ginen bertan, zeren eta, nolabait, lekua gurea zen gu berarenak ginen neurri berean. Kantak dioen bezala, “*Qué bonito ser de Deusto y vivir en la Ribera...*” (nahiz eta ordurako ez zen ez itsasontzirik ez gailetterarik geratzen).

Mende honen hasieran indarra hartu zuenetik, ‘Zorrotzaurre’ marka hori guztia sunstiztera etorri da, auzoaren izena desagerraztearekin batera. Gainera, sunstizte lan hori garai ‘berri’ hauetan ohikoa den moduan egin da, hau da, marketinaren eta propagandaren bidez; salmentarako erabiltzen den diskurtsoaren eta eskaintzen den produktuen artean kontraesan nabariak egon daitezkeenik onartzen ez duen planifikazio baten bidez. Ondo ikasi dute publizitatea ez dagoela errealitatearen mugen menpe eta, beraz, inolako disimulurik gabe erabiltzen dute haren hizkuntza, zeren eta, azken batean, hiria saldu eta erosi ahal den produktu bat besterik ez baita beraiantzat. Eta, gainera, ze arraiio... Bilbokoak gara, eta kito!

Orain, biziberritzearen arloko logika ororen kontra doan eta negoziaren logikarik gordinenari (*business is business*) erantzuten dion Urbanizazio Proiektu bat onartu dute, eta aho beteka aldarrikatuko dute beste mugarri bat dela egunen bukaerara arte luza daitekeen mugarri sorta amaigabe batean. Berrito esango digute proiektu bikaina dela, eta azken emaitza deitzen dioten horren hainbat fotomuntaketa jarriko dizkigute begien aurrean, baina ez dute esango etorkizuneko uhartearen erdialdeko zati handi bat (etxe batzuk eta biztanleak ere badauden lekua) dokumentu horretatik kanpo geratu dela eta, beraz, bertako lanak askoz gehiago atzeratuko direla, eremurik andeatuena eta esku-hartze baten premiarik handiena duen lekua izan arren. ‘Mugikortasun iraunkorraz’ hitz egingo digute, behin eta berrito azpimarratuz uhartea iparraldetik hegoaldera zeharkatuko duen bide ardatz bakarra egongo

“Auzoak gabezia ugari zituen arren, gu eroso sentitzen ginen bertan, zeren eta, nolabait, lekua gurea zen gu berarenak ginen neurri berean”

Testua
Nerea Olaziregi
Eneko Herran
Lekunberri eta Jose
Morales Belda

Argazkiak
PREST!

dela eta tranbia jarriko dutela garraibide publiko gisa, baina inork ez du esango ardatz hori egitea eta, beraz, tranbia ibiltzea ezinezkoa izango dela bukaeraren bukaerara arte, dokumentu horrekin abalazten duten obra programazio burugabearen ondorioz. Bi zubiak etorkizuneko uhar-tearen mutur banatan diseinatu dituzte, ibilgailuen zirkulaziorako autonomia bermatzeko eta proiektua negozio bolumenaren lehentasunen arabera garatuko dela ziurtatzeko (bertan egingo dituzten eraikin berriez ari naiz).

Bide batez, berriro aipatuko dituzte 'auzoaren memoria industrial gordeko duten' 20 pabiloiak, baina ez dute esango orain arte erabili den (eta oraindik ere erabiltzen den) politika pabiloi horiek beren zoriaren menpe uztea izan dela. Horren ondorioz, haietako asko zeharo itxuragabeturik eta hondaturik daude, eta orain arte ez dute ezertxo ere egin hondamendi hori eragozteko. Gainera, kontuan izan behar da pabiloi gehienak urbanizazioaren azken faseetarako utzi diren lekuetan daudela... Ez dago ulertzerik nolatan ez dieten eman erabileraren bat, aldi baterako bada ere eta helburu bikoitz bat lortzeko gutxienez: pabiloiak kontserbatzea (baldin eta garai batean izan zirena gogoraraziko duen zerbait mantentzeko benetako asmorik badute) eta bizitza apur bat ematea auzoko lekuri abandonatuenei eta biztanleriari urriekoei. Nolanahi ere, badirudi lotsa ematen diela beraiek izateak pabiloi horiek eraisteko agindua emango dutenak. Nahiago dute denboraren joana eta ziur aski gertatuko diren lapurretak arduratzea horretaz.

Aitzitik, ez daukat inolako zalantzarik nabe industrialak eta erabilera berriak aipatuko dituztela, baina 'Sormenezko Irla' delako horretaz hitz egiteko soilik. Izan ere, 'Sormenezko Irla' esaten dioten hori proiektuaren elementu nagusietako bat da, itxaronaldi luze hau ('bien bitarteko aldia') entretenigarriagoa egiteko eta etorkizuneko bezeroei begira prezioak igoarazteko diseinatua. Eredu eta diskurtso hori

planetako mila lekutan klonatua izan da, eta, gure kasuan behintzat, gezurren eta erdizkako egien gainean eraiki da. Hala, besteak beste, bertan behera utzitako nabeak berrerabiltzen ari direla esaten digute, kasu gehienetan gezur biribila den arren. Horrekin batera, sormenaren aldeko apustua egiten ari direla aldarrikatzen dute, baina oso zaila da hori sinestea, ez baitute inolako aukerarik eman pikotxetik salbatuko ei diren pabiloietan sormena lantzeko, lehen aipatutako helburu bikoitz bete zezakeen arren. Horren ordez, 'sormena' gaur egungo etxebizitzaren inguruan inokulatu da, bertan bizi den komunitatearen erdigunean txertatu da. Eztarria urratu arte oihukatzen dute horrek bizitza dakarkiola auzoari, baina ezkutatu egiten dute ez dituela pittin bat ere biziberritzen bertan behera utzitako pabiloiak edo leku andeatuak (eta, zoritxarrez, horrelako leku asko daude gaur egungo penintsulan). Horren eragina lehendik bizitza zuen eremura mugatzen da, bertako espazioak okupatuz eta erritmoak aldaraziz. Agian, 'sormena' horregatik da hain erakargarria hiria eraldatzeko plangintza diseinatu eta gauzatzen dutenentzat: interesgarria zaie gentrifikazio geldoa eta atsegina bultzatzen duelako, subliminala bezain eraginkorra.

Era nabariago batean, planifikatzaileen eta artea ekintzailetza gisa ulertzen duten guru berrien arteko lankidetzak gaizki disimulatuak edo instituzioen, eraikuntza enpresa handien eta esperientzia estereotipatuen diseinatzaileen arteko *co-working* horrek oso helburu zehatza du: etorkizuneko uhartearen barnealdea amu erakargarria edo balio aktiboa izatea uhartetik kanpo (Deustuko eta San Inazioko beheko aldean) eraikiko diren lehen etxebizitzeko interesa pizteko. Labur esanda, gaur egun sormenaren arloko ekimen horiek guztiak baliagarriak dira 'Zorrotzaurre' markaren bozgorailu gisa. Etorkizunari begira, aldiz, baliagarriak izan daitezke proiektatu duten mini-hiri berrian ezinbestekoa izango den aisialdi eskaintza guztia 'alde zaharrea', etxabeetan eta gaur egungo etxebizitzaren inguruan kokatzeko.

Nolanahi dela ere, hiri klonikoaren abangoardia horrek eta bata bestearen atzetik datozen mugarri horiek guztiek gauza bat gogorarazi nahi digute: nola edo hala, 'etorkizuna hemen da jadanik'. Oso mezu irensgarria da lekua ezagutzen ez dutenentzat edo noizean behin soilik bertaratzaren direnentzat, eta auzokideen artean ere harrera ona izateko behar bezain atsegina da. Errealitatea, ordea, egoskorra da. Egu-

notan, Bilboko Udalak behin-behinean onartu du Urbanizazio Proiektuaren lehen zatia (bere fase eta desfaseekin), eta aurkeztu diguten dokumentua orain arte esan duguna berrestera dator: Erriberako bizilagunontzat, eguneroko bizitza bertan egiten dugunontzat, etorkizunak etorkizun izaten jarraituko du, 'inoiz iristen ez den eta iristea espero ez den' hori, hain zuzen ere.

AZKEN ENPRESAK URRIAN BOTAKO DITUZTE

Zorrotzaurre Plana martxan hasi aurretik ehundik gora enpresa zegoen Erriberan, gaur egun gelditzen diren apurrei alde egiteko hilabeteko epea eman die Batzorde Kudeatzaileak. Carrocerías Mulei horietako bat da.



Luis Mari Muñozek 40 urte baino gehiago darama Erriberan kotxeak konpontzen. Semerekin batera egiten du lan eta urrirako alde egin behar dutela esan diote. Hase-re eta kezkatuta dago, lokal berria topatu dute Erandion baina negozioa bertara eramateko trabak baino ez dituzte. "Une honetan arazo larri baten aurrean gaude – adierazi digu– hemendik bota nahi gaituzte, eta toki berrian sartzeko oztopoak ditugu". Toki aldaketak berriz zeretik hastea ekarriko die, izan ere, gaur egungo bezero gehienak ingurukoak baitira.

digutenaren hirukoitza edo laukoitza eskatu behar dugu orain bankuan. Bizitza suntsitu didate lana kendu eta kalean utzi nautelako", dio haserre. Beste lokal bat eskatu diote planeko Batzorde Kudeatzaileari, baina Pablo Otaola gerenteak esan die legeak ez dituela horretara behartzen.

Gauzak horrela, Luis Mari etorkizuna beltz ikusten du. Ez da bakarra. Enpresak utzi behar dituzten gehienak etsituta daude. "Hemen gertatu dena lotsagarria da –azpimarratu du– ni hiria berritzearen alde nago, baina ez ni eta nire inguruko enpresa familiar guztiak kalean uzten".

Erriberako tailerraren truke eman dieten diruarekin ezinezkoa da baldintza berberak dituen lokala erostea, eta kreditu handi batean sartu beharko dira. "Eman



RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA



BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT presentatada in CIFEI

